

Giza eskubideak eta lotsa

Jon-Mirena Landa Gorostiza

EHuko Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Unesco Katedraren zuzendaria

Lotsarik ez dago: desagertu egin omen da giza eskubideen urraketengatik gaizki egin izanaren sentimendu gisa. Oraindik ere XX. mendearen bukaera aldera estatuek giza eskubideak zapaltzen zituztenean, esaterako, behartutako desagertzeen bitartez, edo epaiketaz kanpoko erailketen bitartez edota torturen bitartez, egindakoa ezkutatzeko ahalegintzen ziren. Giza eskubideen mugimenduen lana, aitzitik, urraketak argitara ateratzea zen, hain zuzen horien injustizia aldarrikatu ahal izateko, erantzukizunak ezartzen ahalegintzeko, betiere iritzi publikoaren aurrean erantzuleak lotsaraztearen bidez. Batzuek —alegia, estatuko eragileek— urraketak egiten zituztenean, besteek —alegia, giza eskubideen eragileek— hori salatzen zuten, gehienetan salaketa ez judizial baina publikoaren bidez, egiaren aurreko eskandaluak lehertu zuelakoan eta urraketak konponbidean jarriko zirelakoan. Salaketak funtzionatzen zuen, beraz, neurri batean, lotsa sentiarazteko mekanismo gisa. Horren aurrean estatuak ahalegintzen ziren urraketak estaltzen, erantzukizuna ukatzen, kontakizun alternatiboak sustatzen. Horren guztiaren atzean lotsa zegoen, eta horrek presio soziala eragiten zuen, urraketa serio hartzera behartzen zuena.

Baina gaur egun badirudi lotsa desagertu dela: estatuek —haien izenean jarduten dutenek— ez omen dute lotsarik; areago, politikari batzuek, inkuso boterea eskuratu aurretik, argi eta garbi aldarrikatzen dute giza eskubideak urratuko dituztela: lotsagabe halakoak! Behintzat indarkeria politikari dagokionez eta Espainiako eskuin (mutur)aren kasuan, gero eta nabarmenagoa da ez direla lotsatzen. Justiziaren argumentuek bat-batean indarra galdu izan balute bezala, gero eta ozenago entzuten ari gara diktaduran egindakoa ondo egin zegoela; ez zela hainbesterako; edota memoria (demokratikoa) ez dela beharrezkoa. Lotsaren ordez, sufrimenduarekiko mespretxua, batzuetan harrokeria.

Kontua ez da mugatzen Espainiako Estatuko mikro-klima politikora, ezta motibazio politikoa duen indarkeriaren kasura ere. Etorकिन aurkako mespretxua eta haien duintasuna ukatzea nagusitzen ari dira, bigarren mailako gizakiak bailiran. Jada ez da ezkutatzeko etorkinak ez direla ongi etorriak. Eta berdin dio adin nagusiez edota adingabeez ari bagara: batzuk zein besteak urrun mantentzea da helburua. Duela gutxi giza eskubideen defentsa sutsua egiten zuen Europako Batasunak berak ere laguntza humanitarioa debekatu nahi du zuzenbide penalaren bitartez: nork esango zuen hori ikusiko genuenik!

Israelgo Estatuak ere —lotsa gabe— hilketa *selektiboari* eta *de facto*-ko diskriminazio politikari aspaldi ekin bazion ere, 2023ko urriaren 7tik aurrerako gudaz geroztik guda-krimenak eta gizateriaren aurkako kri-

menak ere egiten ditu gu-guztionez aurrean, egunero, etengabe. Ez da ezkutatzeko. Genozidioaren aurrean badirudi oraindik ere lotsa pixka batez jarduten duela: hitz hori aipatzen denean sionismoaren bitarteko guztiak martxan jartzen direlako kasu horretarako gero eta sinesgarritasun gutxiago duen antisemitismoaren mamua astinduz. Ukatzeko dute genozidioa, baina agian, denbora pasatu ahala, hura ere justifikatzeko fasera pasatuko ote dira? Edonola ere, Nazioarteko Zuzenbide Publiko orokorrari zein penalarik horrek eragin dion kaltea izugarria da: sistema bera auzitan jartzerainokoa!

Lotsa ere «bandoz aldatu behar dela» erreibindikatu egin du arrazoi osoz Frantziar Gisèle Pelicot-ek. Genero-indarkeriaren kasuan, muturreko sexu-delituen kasu honetan bederen, lotsaren mekanismoak funtzionatu egin omen du. Baina zenbat eta zenbat eragile politikoa eta sozialek guda kulturalen aitzakiaz auzitan jartzen dituzte gero eta ozenago diskriminazioaren aurkako politikak?

Esandakoaren konklusioetako bat zera da, lotsa desagertzearekin batera, eta agian horren eraginez, giza eskubideak bermatzeko makineria *gripatu* egin zaigula. Gripatu ez ezik, malapartatu, aberiatu, gaizpideratu egin zaigu. Eta horrek pentsarazi beharko liguke. Gure sinesmena ez, baizik eta gure estrategia aldatu beharko dugu. Jada ez du soilik balioko inbokatzea giza eskubideen estandarrak urratzen ari direnik. Edukietara joan behar dugu modu argiagoan: giza eskubideak defendatzeko autoritate-argudioen faltan, lotsa ere

Gaur egun badirudi lotsa desagertu dela: estatuek —haien izenean jarduten dutenek— ez omen dute lotsarik

sentitzen ez dutenen aurrean, mina, kaltea argumentatu beharko dugu. Gure gizartean lotsagabekeria nagusi den moduan, biktimekiko enpatia ere nagusi izaten da horien errealitate gordina denon begi-aurrean jartzen baldin badakigu. Diktaduren moldeek ekarri zuten eta dakarten mina eta injustizia; etnien oinarriturik pertsonak baztertzeko, diskriminatzeak dakarren mina eta injustizia; emakumeen aurkako mota guztietako diskriminazio eta indarkeria sistematikoak eragiten duen mina eta injustizia... Hori da herri-plazan salatuta jarri behar duguna. Ez dezagun denbora gehiegi galdu giza eskubideen nazioarteko sistema pairatzen ari den ahuleziaren eta gainbeheraz kexu egiten. Giza eskubideak —gure artean bederen— oso erroturik daude eta defendatzeko tresnak ditugu, nazioartekoak zein barneko forrokoak. Erabil ditugun. Lotsagabekeriaren aurrean ez gaitzezen kikildu. Denborak txarrerako aldatu diren moduan berriro ere hoberako aldatuko dira, eta, hori ahalik eta lasterren gerta dadin, gure esku dago hitzez zein ekintzez giza eskubideen altxorra defendatzea: guk hori bai lotsa gabe! ●

Arrain zopa



JIRA
Maialen Akizu

Catalina Goya Murgiondo Mutiloako Troi-Errota baserrian jaio zen 1912an. Umetan Segurara lekualdatu zen familia, eta neskatila zela Bilbora bidali zuten neskame, orduko aristokrata ondrosenak ziren sotatarren etxera. Catalinaren sukaldarako abilezia ikusita akademia batera bidali zuten sotatarrek, eta ordutik sukaldari lanetan aritu zen; baserrietako ezkontzak gobernatzeko zituen, klaseak ematen, jatetxe sonatuak laguntzen. *Libro de cocina* bere liburuak etxe askotan ditu olio arrastoak, eta orain gutxi aurkeztu dute laugarren edizioa.

Inork egun hauetarako behar badu, hauxe Catalinaren arrain zoparen errezeta: Arrain-salda ona egin: bi porru, tipula erdi bat sukaldako txapan doratua, perrexila, aurrez egindako bi koilarakada tomate, legatz buru bat eta ehun eta berrogeita hamar gramo almeja. Egosi dena sutondoan, atera arraina irakiten hasi eta hamabost minutura, eta gorde beste kazola batean olio frijituarekin, baratxuriarekin, tipularekin eta porruarekin. Utzi egiten. Gero, arrain-salda eta 50gr pistola-ogi gehitu zopari, pixka batean irakiten utzi, eta zerbitzatu, arraina platerera ateratzea ahaztu gabe. ●

Soinu tsunamia



BIRA
Itxaro Borda

Iragan larunbatean Aiherran nintzen, lehen leerroan, Arberoako ikastolaren sustenguz antolatuta Su Ta Gar taldearen kontzertuan! Ikaragarria zen, lehen gitarra *riff* eta bateria uhin izugarriak irentsiko eta suntsituko ninduela uste izan nuen, baina iharduki zuen ene bihotzak eta ene zerebroko sinapsien loturak ez ziren desegin. Metal meta astunaren pean lehertu ninduen musikak, belarri-babesik gabe nengoela gainera!

Emanaldia hasi orduko, eta denboraren poderioz hungigarria suertatzen zaigun *Jo Ta Ke* kantaren erritmoan, azantz, zarata, harrabots, harramantza elektrikoaren erdian itorik, pentsatu nuen ama-ontzietan geundenean, mundua berdin entzuten genuela, herots elkor eta abarrots bizigarri baten antzera hots! Gogapen hau ere jin zitzaidan burura: zenbat maite dudana euskaraz egiten den musika, izan La Basu, Esanezin, Su Ta Gar edo Maddi Oihenart. Gure herri-ontziaren soinu banda paregabea...

Bertako gurasoek adalatu talo zapoetsu bi klikatu nituen gauaren minean urtu aitzin. Plazer hutsez, taloak eta euskaradun gazteak ekoizten segi dezan Arberoako ikastolak. ●